


EUSKO
LEGEBILTZARRERAKO
2020ko
HAUTESKUNDEAK

JARRAIBIDEEN
ESKULIBURUA
HAUTESKUNDEETAKO
MAHAIKIDEENTZAT



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD



2020KO UZTAILAREN 12KO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK. OSASUN-JARRAIBIDEAK

(Eusko Legebiltzarrerako 2020ko uztailaren 12ko
hauteskundeak egiteko Osasun Sailburuordetzak 2020ko ekainaren 1ean
onartutako osasun-jarraibideen laburpena)

1.- HAUTESLEKUAK

Antolaketa-neurriak ezarri beharko dira boto-emaileen sarrera hauteslekuetara ordena mantenduz egin dadin.

Hauteslekuak garbitu eta desinfektatuko dira hauteskunde eguna baino lehen, bozketa egunean zehar eta bozkatu ondoren.

Hauteslekuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Hauteskunde-mahaien artean gutxienez bi metroko tartea egotea.
- Mahaikideen arteko distantzia gutxienez 1,5 metrokoa izatea.
- Bozketa-kabina hauteskunde-mahaitik behar bezala aldentuta egotea.
- Lokala aireztatuta mantentzea.
- Hauteslekuaren barruan pertsonak mugitzen laguntzea, segurtasun-tarteak mantenduz.
- Lurrean jarritako marken bidez, boto-emaileen arteko distantziak mantentzea daitezela erraztea botoa emateko itxaronaldian.

Illo horiei jarraituz, hautesleku asko egokitu egin dira edo lekuz aldatu, edo lokalak zuen mahai kopurua murriztu egin da.

2.- HAUTESLEAK

a) Neurri orokorrak:

- Hauteslekuaren barruan maskara nahitaez erabiltzea.
- Hauteslekuaren sarreran gel hidroalkoholikoa jarriko da, eta hautesleak sarreran eta irteeran erabiliko du.
- Hautesleak higie- eta distantzia-arloko osasun-agintarien gomendioak bete behar dituzte, bai eta hauteslekuan sarbideei eta fluxuei buruz jasotzen dituzten argibideak ere.

b) Bozketa-prozedurarako neurri zehatzak:

- Hautesleak une batez kendu ahal izango du bere maskara, hauteskunde-mahaiak bere nortasuna ezagutu ahal izan dezan, eta segurtasun-tartea une oro mantenduko du.
- Ahaleginak egingo dira dokumentazio pertsonala edo bozketa-gutun-azala mahaiburuari fisikoki ez emateko, eta nahikoa izango da erakustea.

2020KO UZTAILAREN 12KO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK. OSASUN-JARRAIBIDEAK

3.- MAHAIKIDEAK

Administrazio ordezkariak mahaikide bakoitzari erabilera indibidualeko materiala emango dio, eta, gainera, beharrezkoak diren erabilera-jarraibideak azalduko dizkio.

a) Bozketa jardunaldirako materialak eta neurriak:

- Maskara kirurgikoak
- Gel hidroalkoholkoa hauteskunde-mahai bakoitzeko

b) Boto-kontaketarako materialak:

- FFP2 maskara
- Nitrilozko eskularruak

Gainera, plastikozko poltsa hermetikoak emango dira, babes-materiala botatzeko.

Boto-zenbaketari dagokionez:

- Mahaiburuak zainduko du boto-kontaketara bertaratutakoen kopurua lokalaren edukiera ez gainditzea gomendatutako distantziak kontuan hartuta, betiere kontaktetan parte hartu behar dutenak alde batera utzita.
- Botoak zenbatzeko eragiketetan parte hartzen duten pertsonak gomendatutako distantzia eta higiene- eta osasun-neurriak mantentzen saiatuko dira.

Osasun-jarraibideen bertsio osoa eta horri buruzko informazio gehigarria www.hauteskundeak.eus webgunean aurki dezakezu.

Webgune horrek atal espezifikoak du. Bertan hauteskunde-mahaietako ki-deek haientzat berariaz prestatutako informazio erabilgarria eta erraza aurki dezakete.

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO 2020ko HAUTESKUNDEAK


JARRAIBIDEEN ESKULIBURUA HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEENTZAT

Indarrean dagoen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen arabera, Ekainaren 19ko 15/1998 Legeak, urriaren 4ko 6/2000 Legeak, martxoaren 28ko 1/2003 Legeak, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatuta eta abenduaren 23ko 11/2015 Legeak.

Hauteskunde-batzorde zentralak eta Autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzordeak gainbegiratuta. Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartua.



SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD



HAUTESKUNDE-MAHAIKO JARDUEREN LABURPEN-TAULA HAUTESKUNDEETAKO JARDUERA NAGUSIAK:

ORDUTEGIA BOTOA EMATEKO EGUNA

8:00 HAUTESKUNDE-MAHAIA OSATZEA

- Lehendakari eta bokal titularrak eta haien ordezkioak bilduko dira hauteskunde-mahaia osatzeko.
- Artekarien egiaztagutunak jasotzea.

8:30

MAHAIA ERATU ONDORENGO OPERAZIOAK

- Hautestontzia eta hauteskunde-kabina nola dauden egiaztatuko da, baita boto-txartelak, gutun-azalak eta gainerako hauteskunde-inprimakiak ere.
- Hauteskunde-mahaia osatzeko akta idaztea.

9:00

BOZKETA

- Hauteskunde-lekua irekitzea eta bozketa hastea.
- Bozketa egiteko modua:
- Hautesleak identifikatzea.
- Hauteskunde-mahaiko erroldan hautesleek izena eman duten egiaztatuko da.
- Boto-txartela hautestontzian sartzea.
- Mahaiko zerrenda zenbakidunean idatziko da boto-emaile ba-koitzaren izena.
- Hauteskunde-mahaiko bozketaren amaiera.

20:00

ZER EGIN BEHAR DA BOZKETA IXTEKO.

- Posta bidezko botoa: ireki egingo da eta hautestontzian sartuko.
- Mahaikideek eta artekariak botoa emango dute.
- Botoak zenbatzea:
- Boto baliogabea eta zuria.
- Mahaiko hauteskunde-emaitzak iragarriko dira.
- Mahaiko boto-zenbaketaren behin-behineko jakinarazpena Euskal Administrazioaren ordezkariari eta artekariari emango zaie, baita eskatuko duten ahaldunei ere.
- Hauteskunde-eguna amaitzea:
- Hauteskunde-mahaiaren Bilkura-akta idatziko da.
- Epaitegian aurkeztuko dira hauteskunde-agiriak, 4 gutun-azal-letan sartuta.

HAUTESKUNDEMAHAIETAKO KIDEENTZAKO ESKULIBURU LABURTUA

1- HAUTESKUNDEMAHAIK:

- Hauteskundemahaiaren egitekoak honako hauek dira: botoa emateko egintza zuzentzea, bozketa nola garatzen den kontrolatzea eta botokontaketa egitea.
- Hauteskundemahaia honako hauek osatzen dute: lehendakariak eta bi bokalek.
- Hauteskunde-mahaiko lehendakariak **85 euroko** dieta jasotzeko eskubidea du. Mahaikide bakoitzak ere **85 euroko** dieta jasotzeko eskubidea du. Gainera, bozketaegunean, lehendakariak eta mahaikideek Gizarte Segurantzaren Sistemaren estaldura izango dute.
- Lehendakari, bokal eta mahaietako kideen ordezkotzako karguak nahitaez onartu beharrekoak dira. Hortaz, hauteskunde-mahaiaren eratzeegintzara inolako justifikaziorik eman gabe ez agertzeak hauteskunde-delitua ekar dezake.

7

2- HAUTESKUNDEMAHAIEN ERAKETA:

- Hauteskunde-mahaiko lehendakaria, bokalak eta horien ordezkotzakoak 08:00etan elkartuko dira bozketarako zehaztutako hauteslekuan.
- Lehendakaria eta bi bokal izan ezean ezin da hauteskundemahaia eratu. Hauteskundemahaia eratu ezin bada, horren berri emango zaio Hauteskundebatzordeari, eta batzorde horrek izendatuko ditu mahaia eratuko dutenak.
- Hauteslekuaren barruan, hauteskundemahaiko lehendakaria da ordena publikoa zaintzeko agintari nagusia. Hari dagokio ordena mantentzea eta hautesleen askatasuna bermatzea. Horretarako, hauteslekuetan egongo diren ertzainek lehendakariak eskatutako laguntza emango dute, bai hauteslekuaren barruan bai hauteslekutik kanpo ere.

3- BOZKETA-EGUNA:

- Bozketa 09:00etan hasiko da eta 20:00etan amaituko da, ete-naldirik gabe.
- Bozketa-egunean, hauteslekuaren barruan ezin da kartelik edo hauteskundepropagandarik egon. Halakorik balego, lehendakariak horiek kentzeko aginduko die ertzainei.
- Botoa emateko, hautesle bakoitzak bere burua identifikatu behar dio hauteskunde-mahaiari agiri hauetako baten bidez:
 - Nortasun agiri nazionala (NAN)
 - Pasaporte (argazkiarekin)
 - Gida-baimena (argazkiarekin)

Agiri horiek dira baliodunak, iraungita badaude ere, baina originalak izan behar dute. Fotokopiek ez dute balio.

- Noiz edo noiz hutsik dagoela edo ondoren aipatutakoren bat falta dela ohartuz gero, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeari jakinarazi behar diozu berehala falta dena ordezkari edo ekar dezan Administrazioaren ordezkaria denak Mahaiburuari eman zuen telefonoan.
- Dena delako hauteskunde-mahaiko hautesleerroldaren zerrendan agertzen ez den hautesleak mahai horretan bozka dezake? Bai. Hauteskundemahaiko lehendakariak hautesle horren botoa onartuko du baldin eta hautesleak botoa emateko eskubidea duela egiaztatzen badiu, dela epai bidez dela Hautesle Erroldaren Bulegoak emandako erroldaegiaztagiri zehatzaren bidez. Nolanahi ere, egiaztatu beharko du hauteslearen helbideari dagokiola botoa eman nahi duen hauteskundemahaia.
- Hautesle batek beste hautesle baten izenean bozka dezake? Ez. Botoa emateko egintza pertsonala da, eta transferiezina.
- Posta bidezko botoa eskatu duen hautesleak hauteskundemahaian bozka dezake? Ez, inola ere ezin du botoa pertsonalki eman.
- Nork eman diezaizkieke argibideak hautesleei botoa emateko moduari buruz? Soilik lehendakariak eta bi bokalek.

4 - BOTO-KONTAKETA:

- Bozketa 20:00etan amaitzen da. Bozketa amaitutakoan, posta bidezko botoa sartuko da hautestontzian. Ondoren, mahaikideek eta botoa emateko eskubidea duten artekariak bozkatuko dute. Horiek denak bozkatutakoan, botokontaketa hasiko da.
- Hauteskundemahai bakoitzeko botokontaketa publikoa da. Botokontaketa hastean, edozein herritarrek jarrai dezake kontaketa bertatik bertara, esatekorik eta botoa emateko eskubiderik gabe. Herritarrek ezin dute erreklamaziorik egin, ez kezarik aurkeztu ezta botokontaketaren jarduna oztopatu ere.
- Hautestontzian sartutako botoak baliodunak edo baliogabeak izan daitezke:
 - Boto baliodunak dira: hautagaitzei emandako botoak eta boto zuriak.
 - Boto zuriak dira botopaperik ez duten gutunazalak.
 - Boto baliogabeak dira, irregulartasunen bat izateagatik Hauteskundeen Legeak zehaztutakoak. Eskuliburu honen IV. paragrafoko b) hizkian zehazten dira.
- Hauteskunde-mahaiko lehendakariak eta bokalek soilik erabakitzen dute boto bat balioduna ala baliogabea den.
- Hauteskundemahaia gorde egin behar ditu beti baliogabetzat jo dituen botoak, izan litezkeen erreklamazioak argitze aldera. Boto horiek agiriak gordetzeko 1 zenbakiko gutunazalean gorde beharko dira.

5- BOTOKONTAKETAREN AMAIERA:

- Boto-kontaketa amaituta, hauteskundemahaiak, bilkuraren akta idatzi ostean, kolore marroiko 4 gutunazal handitan banatuko ditu agiriak:
 - 1 zenbakiko gutunazalean, honako agiri hauek sartuko ditu: hauteskundemahaiaren eraketaaktaren originala, bilkuraren akta, botoemaileen zerrenda zenbakitua, hautesleerroldaren zerrenda eta baliogabetzat jotako botopaperak.
 - 2 eta 4 zenbakiko gutunazaletan, horietako bakoitzean, eratzektan eta bilkuraakten kopiak sartuko ditu. 3 zenbakiko gutun-azalean, berriz, adierazitako kopiez gain, atzerriko posta bidezko botoaren frankeogastuak itzultzeko jasotako eskaerak, halakorik balego.
- Lau gutun-azal horiek itxitakoan, lehendakariak, bokalek eta artekariak horietan guztietan sinatuko dute. Sinadurak gutunazaletako hegalk itxi eta gutun-azalarekin bat egiten duten zatian egin beharko dira. Jarraian, hauteskundemahaitik hurbilen dagoen lehen auzialdiko epaitegira edo bakeepaitegira joango dira, gutun-azal horiek bertan uzteko.

AURKIBIDEA

I. MAHAIKO HAUTESKUNDE-AGIRIAK

A) Eskuliburua: hauteskunde-mahaietako kideen jarraibideak	15
B) Mahaiko hauteskunde-agirien zerrenda eta ezaugarriak	15
C) Mahaikide bakoitzarentzako oharra	17
D) Boto-txartelak, gutun-azalak, hautestontziak eta kabinak	17
E) Hauteskunde-aretoaren baldintzak egiaztatzea	18

II. HAUTESKUNDE-MAHAIK

A) Mahaiak eratzea	19
B) Mahaiak osatzea	19
C) Mahaiko buru eta kide titularrak ordezkatzeari	20
D) Mahaiak ezin osatzea	20
E) Artekarrien egiaztaturak jasotzea	21
F) Mahaia osatzeko akta	22
G) Mahaia osatzeko aktaren kopiak egitea	23
H) Mahaiburuaren eta mahaikideen eginkizunak	23
I) Mahaiburuaren eta mahaikideen agintea	24

J) Mahaiburuaren eta mahaikideen eskubideak	24
K) Bozketa iraun bitartean, mahaiburua, mahaikideak eta ordezkokoak egotea edo ez egotea	25
L) Hauteskunde-mahaietako kideek debekatuta dute hauteskunde-propagandako legendak, ikurrak eta enblemak eramatea edo erabiltzea	25
M) Artekarien ahalmenak	26
N) Ahaldunen ahalmenak	27

III. BOZKETA

A) Boto ematen hastea	30
B) Bozkatzeko eskubidea egiaztatzea	30
C) Erroldako ziurtagiri bereziak, hauteskunde-mahaietan bozkatu ahal izateko	33
D) Bozketaren garapena	34
E) Oharpenak, mahaiko boto-emaileen zerrenda zenbakiduneari	36
F) Bozketa etetea	37
G) Bozketa bertan behera uztea	37
H) Hauteskunde-mahaiari jarritako erreklamazioak	37
I) Bozketa amaitzea	38

J) Posta bidezko botoa:	38
Ireki egingo da eta hautestontzian sartuko	38
Onartzea	39
Aurka egitea	40
K) Mahaikideek eta artekariak botoa emango dute	41
L) Mahaiko boto-emaileen zerrenda zenbakidunean sinatzea	41
M) Hautesleen bozketa-ziurtagiria	41
N) Lokalean sar edo egon daitezkeen pertsonak	42
O) Hedabideak hauteskunde-kolegio edo hautesleketan egotea	43

IV. BOTO-ZENBAKETA ETA BIRKONTAKETA

A) Boto-zenbaketaren izaera publikoa	44
B) Boto baliogabea eta zuria	45
C) Mahaiko botoak kontatzeko prozedura	46
D) Mahaiko emaitzak aldarrikatzea	47
E) Euskal Administrazioaren ordezkariak	48
F) Hauteskunde-mahaiko behin behineko boto-zenbaketa jakinaraztea	48
G) Hauteskunde-mahaiaren Bilkura-akta	48

V. HAUTESKUNDE-AGIRIAK PRESTATZEA ETA EMATEA

A) Hauteskunde-agiriak banatzea 4 gutun-azal zenbakidunetan	51
B) Hauteskunde-agiriak Epaitegian aurkeztea	52

ERANSKINA. HAUTESKUNDE-MAHAIAN EGONGO DIREN AGIRIEN EREDUAK

Hauteskunde-mahaia osatzeko akta (Eredua: EHDM/81)	60
Hauteskunde-mahaiaren behin-behineko boto-zenbaketa jakinaraztea (Eredua: EHDM/82)	59
Hauteskunde-mahaiaren bilkura-akta (Eredua: EHDM/83)	58
Boto-emaielen zerrenda zenbakiduna (Eredua: EHDM/84) (Eredua EHDM/84a)	57
Lau gutun-azal marroi, mahaiko hauteskunde-agrietarako (Eredua EHDM/85)	56
Epaitegiak mahaiari bidalitako agiria, 1, 2, 3 eta 4 gutun-azalak eman izana egiaztatzeko (Eredua: EHDM/89)	55
Bozketa-agiriak, mahaiak beteko ditu hautesleak hala eskatuz gero (Eredua: EHDM/811)	54
Gutun-azala, atzerritik bidalitako posta bidezko botoaren bidalketa-gastuen agiriak sartzeko (Eredua: EHDM/812)	53
Hauteskunde-mahaiko buruari zuzendutako bi gutun-azal, mahai horretako artekariaren egiaztgutuneri kopiak dituenak (Eredua: EHIA/52 zuria eta 53 horia)	53



I. MAHAIKO HAUTESKUNDE-AGIRIAK

A) ESKULIBURUA: HAUTESKUNDE-MAHAIETAKO KIDEEN JARRAIBIDEAK.

Eskuliburu hau zozketa bidez izendaturiko pertsonentzat da, hain zuzen, Hauteskunde-mahaia osatu behar dutenentzat, hauteskunde-egunean dituzten eginkizunak errazago burutzeko. Hauteskunde-batzorde Zentralak eta Euskal Autonomia Erkidegokoak gainbegiratu eta Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartu duen testua da; eranskin batek osatzen du, mahaia erabili behar dituen hauteskunde-agiriaren ereduak dituena. Liburuxka izendapena egitean banatzen da.

B) MAHAIKO HAUTESKUNDE-AGIRIEN ZERRENDA ETA EZAUGARRIAK.

Eginkizunak bete ahal izateko, agiri hauek izan beharko ditu mahaia.

1. Hauteskunde-mahaia dagokion hautesle-errolako zerrenda ziurtatu bat izango du, mahaiko kideek boto-emaile bakoitza erroldan inskribatuta dagoela egiaztatu ahal izateko. Hauteskunde-eguna amaituta, mahaia prestatu behar duen 1 zk.-ko gutun-azalean zerrenda hori sartu behar da.

Horrez gain, mahaia barne hartzen duen hauteskunde-atalari dagozkion kaleen zerrenda ere izango dute hauteskunde-mahaian, eta mahaia horretako hautesleen lehen abizenaren hasierako hizkien tarte alfabetikoa, hauteslekuan jendaurrean jartzeko.

Halaber, mahaiari dagokion hautesle-erroldako zerrendan azken orduko altak edo bajak gertatu badira edo posta bidez bozkatuko duten hautesleen zerrendan aldaketarik egon bada, mahaiak hauteskunde-dokumentazioaren barruan informazio hori (altak, bajak, eta posta bidez bozkatuko duten hautesle berrien zerrenda) ere izango du paperezko eranskinetan.

2. Hauteskunde-mahaia osatzeko akta (Eredua: EHDM/8.1).
3. Hauteskunde-mahaiaren behin-behineko boto-zenbaketa jakinaraztea (Eredua: EHDM/8.2).
4. Hauteskunde-mahaiaren bilkura-akta (Eredua: EHDM/8.3).
5. Boto-emaileen zerrenda zenbakiduna (Eredua: EHDM/8.4).
6. Lau gutun-azal marroi, mahaiko hauteskunde-agirietarako (Mod. EHDM/8.5).
7. Epaitegiak mahaiari bidalitako 1., 2., 3. eta 4. gutun-azalak sartu direla dioen agiria (Eredua: EHDM/8.9).
8. Bozketa-agiriak dituen bloka, mahaiak beteko duena hautesleek hala eskatuta (Eredua: EHDM/8.11).
9. Gutun-azala, atzerritik bidalitako posta bidezko botoaren bidalke-ta-gastuen agiriak sartzeko (Eredua: EHDM/8.12).
10. Bi gutun-azal Hauteskunde-mahaiko buruarentzat; horrek izango ditu jardun eta erroldatutako artekarien egiaztagutunen kopiak (Eredua: EHIA/5.2 eta 5.3).
11. Hala badagokio, ikusteko urritasuna duten eta hauteskunde-mahaiaren erroldatuta dauden pertsonen zerrenda: Braille irakurketa eta idazketa sistema ezagutzen badute, % 33ko edo goragoko ezintasun maila onarturik badute eta Eusko Jaurlaritzari jakinarazi badiote botoa horrela emateko asmoa, izan ere araudiak erregulatzeko baitu talde horrentzat botoa emateko prozedura eskuragarria. Mahaiak ez badu karpeta-kopuru nahikorik ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen emateko, zerrendaren arabera hala eskatu badute, bozketa hasi baino lehen Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinarazi beharko diote.
12. Hala badagokio, bozketa sistema hori erabiltzeko arauzko agiriak; mahaiak aipatu zerrendan dauden pertsonen emango dizkie (agiri horiek dituen maleta bat egongo da aipaturiko zerrendan agertzen den bakoitzarentzat). Maletaren bat falta bada, Mahaiko buruak Eskualdeko Hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar du.

C) MAHAIKIDE BAKOITZARENTZAKO OHARRA.

Mahaiko buruak eta kideek jakin behar dute zein den “Euskal Administrazioaren ordezkaria”, dagozkien ordainak ordaintzeko ardurura izango baitu eta, hala badagokio, Hauteskunde-mahaian ez dauden hauteskunde-agiriak emango baitizkie. Horietako bat falta bada, mahaiaren Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinaraz diezaiokete gorabehera hori, gehiago ekar dezaten.

D) BOTO-TXARTELAK, GUTUN-AZALAK, HAUTESTONTZIAK ETA KABINAK.

1. Boto-txartel zuriak egongo dira Hauteskunde-mahaia dagoen aretoan bertan, altzari edo mahai osagarrietan, baina horretatik urruti, mahaia osatzen dutenek ikusteko moduan egon daitezten.
2. Inola ere, ez da boto-txartelik egongo Hauteskunde-mahaian.
3. Hauteskunde-areto guztietan hauteskunde-kabina bat egongo da hormari atxikia, nahi duen hautesleek erabil dezan boto-txartela gutun-azalean sartzeko. Hori egindakoan, mahaiko buruari emango dio (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 99.2 artikulua).
4. Hauteskunde-kabinetan, une oro, behar beste gutun-azal ofizial eta hautagai-zerrenda bakoitzeko boto-txartel egon beharko da, hauteslearen eskuragarri.
5. Mahaiko burua arduratuko da altzarian edo mahaitxo osagarrian egoteaz hautagai-zerrenda guztien boto-txartelak, bozkatzeko ordu guztietan.
6. Hauteskunde-mahaietan edozein kolorekoa izan daitekeen hautestontzi bakarra egongo da, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 99.1 artikulua).
7. Hauteskunde-mahai bakoitzeko hautestontzia zigilaturik egongo da, inork ez dezan ireki, mahaiko kideek, artekariak eta ahaldunek jakin gabe. Zigilua apurtzen edo hondatzen bada, mahaiko buruak ziurtatu beharko du hautestontzia itxita dagoela, eskura duen edozein gauza erabiliz.


8. Bozketa egunean, mahaia osatzeko orduan nahiz geroago edozein unetan, lehen aipatutako edozein osagairen bat falta bada, mahaiko buruak berehala jakinaraziko dio mahai horretako Euskal Administrazioaren ordezkariari edo dagokion Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, falta dena ekar dezaten (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 99.4 eta 109. artikulua).

E) HAUTESKUNDE-ARETOAREN BALDINTZAK EGIAZTATZEA

Hauteskunde-mahaia dagoen Hauteskunde-aretoa baldintza egokietan egon beharko da botoa emateko. Lokalerako sarrerak libre eta irisgarri egon behar du beti sartzeko eskubidea dutenentzat.

Hauteskunde-mahaiko kide guztientzako beste aulki eta mahai egon beharko dira, hala nola argi egokia, bulegoko materiala eta hauteskunde-leku, barruti, atal eta mahaiaren tokia adierazteko errotuluak.

Ikusteko urritasuna duten pertsonen Eusko Jaurlaritzari jakinarazi badiote Braille botoa emateko asmoa, araudiak ezartzen du botoa emateko prozedura eskuragarria, bozkatzeko eskubidea betetzea errazteko. Horrelakoetan, dagokien hauteskunde-kolegioak eduki behar du toki zehatza, irisgarria eta egokia, aipatu pertsonen pribatasuna bermatzen duena; hortaz, bozkatzeko eskubidea betetzeko dagokion mahaitik ahalik eta hurbilen egongo da.



II. HAUTESKUNDE-MAHAIK

A) MAHAIK ERATZEA.

Bozketa egunean, Hauteskunde-atal bakoitzean gutxienez, mahai bat egongo da eta eginkizun hauek izango ditu: bozketaren buru izatea eta hori agintzea, botoak zenbatzea eta Hauteskunde Legea betetzen dela zaintzea (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 40. eta 41.1 artikulua).

Hauek dira hauteskunde-mahaiaren partaideak (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 41.1 artikulua):

- Mahaiburua.
- Bi mahaikide.

Mahaiburu, mahaikide eta horien ordezkari karguak nahitaezkoak dira eta, bozketa egunean, bertaratzen ez badira dagozkien eginkizunak betetzera, horrek ekar diezaike 3 hilabetetik urtebete arteko askatasuna kentzeko zigorra ezartzea, bai eta 6 hilabetetik 24 hilabete arteko isuna (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko Lege Organikoaren 143. artikulua).

B) MAHAIK OSATZEA.

Bozketa egunean, goizeko 8:00etan, hauteskunde-mahaia osatzeko eta horren buru jarduteko izendatutako lokalera bertaratuko dira mahaiburu titularra eta bi ordezkariak eta mahaikide biak eta dagozkien ordezkariak (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 97. artikulua).

Hauteskunde-mahaia **zortzi eta erdiak baino lehenago** osatuko da, mahaiburua eta bi mahaikide izango ditu, hau da, mahaiburua eta mahaikideak izateko izendatutako hiru pertsonak osatuko dute, titularrak edo ordezkoak izanik.

Mahaia ezin izango da osatu aipatu pertsonak ez badaude.

C) MAHAIBURU ETA MAHAIKIDE TITULARRAK ORDEZKATZEA
(EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO 5/1990 LEGEAREN 98.2 ARTIKULUA).

1. Mahaiburu titularra agertzen ez bada, mahaiburuaren lehenengo ordezkoak ordeztuko du.
2. Aurreko pertsona ere ez bada bertaratzen, bigarren ordezkoak ordezkatu du.
3. Aurreko bat ere ez bada agertzen, mahaiburua hurrenkera honetan beteko da:
 - Lehen mahaikide titularra.
 - Bigarren mahaikide titularra.

Bertaratu ez diren edota mahaiburu hartu duten mahaikide titularrak dagozkien ordezkoak ordezkatu dituzte.

D) MAHAIAK EZIN OSATZEA.

Mahaia osatzeko beharrezkoak diren mahaiburu eta mahaikide izateko izendatutako hiru hautesle gutxienez ez badira bertaratzen (ordezkoak barne), artekariak edo bertan daudenek, **goizeko zortzi eta erdiak baino lehenago**, berehala deituko dute telefonoz dagoen Eskualdeko Hauteskunde Batzordera, ordezkari bat izenda dezan; hori hauteskunde-atalera joango da bertan daudenen artean mahaiko kide berriak izendatzera (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 98.3 artikulua).

Hala eta guztiz ere, lehen esandakoagatik, hauteskunde-mahaia eratzen ez bada **goizeko hamarrak baino lehen**, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak izendatutako ordezkariak gorabehera hori jakinaraziko dio aipatu Hauteskunde Batzordeari; eta horrek, hurrengo bi egunetan, hauteskunde-mahaian bozketa berrirako deia egingo du (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 98.4 artikulua).

E) ARTEKARIEN EGIAZTAGUTUNAK JASOTZEA.

Goizeko zortzietatik zortzi eta erdietara, mahaiburuak eta mahaikideek jasoko dituzte hautagai-zerrendetako artekariak aurkeztutako izendapen-agiriak.

Ildo horretatik, baliozkotzat hartuko dira kopia-paperean bidalitako Artekarien egiaztgutunen taloia, baita banakako dokumentu berdinetan bidalitakoak ere, informatika-sistemen bidez argitaraturik eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeek behar bezala zigilatuta.

Bozkatzeko mahaian ezin da egon bi artekari baino gehiago hautagai-zerrenda bakoitzeko (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 92.1 artikulua).

Hortaz, hauteskunde-mahaiburuak aurkeztutako egiaztgutunei zenbakia jarriko die, kronologikoki jaso ahala.

Ondoren, mahaiburuak eta mahaikideek egiaztatu beharko dute artekariak aurkeztutako egiaztgutuna bat datorrela mahaia duen taloi-orriarekin edo izendapenaren kopiarekin.

Aipatu egiaztgutuna eta taloi-orria desberdinak badira edo bat ez badatoz, edota taloi-orriak ez badago, mahaia artekariak jabetu ditzake, mahaia bilkura aktan horren berri eman behar badu ere (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 92.9 artikulua). Hala ere, Hauteskunde-mahaia ez badu taloi-orriak edo egiaztgutunik jaso, artekariak ezin izango du botoa

eman egiaztatutako mahaian, nahiz eta aipatu pertsona bere eginkizunak betetzeko barruti horren hauteslea izan (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 92.10 artikulua, martxoaren 28ko 1/2003 Legeak aldatua).

Alabaina, Mahaia taloi-orria jasota duela, artekaria egiaztatutunik gabe bertaraten bada, mahaiburuak mahaikide izateko baimena emango dio, identitatea egiaztatu ondoren, bertan bozkatzeko eskubidea duela, betiere bere eginkizunak beteko dituen hauteskunde-barrutiko hauteslea bada (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 92.10 artikulua, martxoaren 28ko 1/2003 Legeak aldatua).

Artekaria **goizeko zortzi eta erdiak baino beranduago** bertaratz gero Hauteskunde-mahaian, Mahaia osatzeko Akta egin eta gero, mahaiburuak **ez dio karguaren jabetzarik emango**; dena dela, botoa mahai horretan eman ahal izango du, betiere bere eginkizunak bete behar zituen hauteskunde-barrutiko boto-emailea bada (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 92.11 artikulua, martxoaren 28ko 1/2003 Legeak aldatua).

Artekariak aurkeztutako egiaztatutunak edota mahaiburuak jasotako aipatu taloi-orriak edo izendapenen kopiak Bilkura-aktarekin batera joango dira eta 1. gutun-azal marroian sartu beharko dira (EHDM/8.5 erdua).

F) MAHAIA OSATZEKO AKTA (EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO 5/1990 LEGEAREN 100.1 ETA 2. ARTIKULUA).

Goizeko zortzi eta erdietan, mahaiburuak mahaia osatzeko akta beteko du, Mahaikideek eta Artekariak sinatuko dutena (EHDM/8.1 Erdua).

Aipatu aktan zehaztuko da zeintzuk osatzen duten mahaia, bakoitzaren kargua baita artekariaren izenen zerrenda eta bakoitzak ordezkatzeko duen hautagai-zerrenda ere.

Mahaia osatzeko aktaren jatorrizkoa 1. gutun-azal marroian sartuko da eta jatorrizko horren hitzez-hitzezko hiru kopia ere 2., 3. eta 4. gutun-azal marroietan sartuko dira.

G) MAHAIA OSATZEKO AKTAREN KOPIAK EGITEA.

Mahaiburuak mahaia osatzeko aktaren kopia bana, horren kideek sinatuta, emango die eskatzen duten artekari eta ahaldunei. Hautagai-zerrenda bakoitzeko akta bakarra emango da (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 100.3 artikulua).

Mahaiburuak kopia hori egingo ez balu edo egiten atzeratuko balitz, eragindako pertsonak kexa egin dezake, idazki bikoiztuaren bidez. Horietako bat hauteskunde-espeditarekin batera joango da eta bestea aipatu pertsonak aurkeztuko dio dagokion lurralde historikoaren Hauteskunde Batzordeari (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 100.4 artikulua).

H) MAHAIBURUAREN ETA MAHAIKIDEEN EGINKIZUNAK

Mahaiburuak eta, hori ez badago, mahaiburu izango den mahaikideak neurri egokiak hartuko ditu hauek SAIHESTEKO:

1. Hauteskunde-aretoetan eta inguruetan, hautagaien alde ino-lako propagandarik egitea ezta boto-emaleei galdetzea ere, botoa eman aurretik, nori emango dioten botoa (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 111. artikulua, ekainaren 19ko 15/1998 Legeak aldatua).
2. Hauteskunde-lekuetara sartzea oztopa dezaketen taldeak egitea, botoa emateko eskubidea askatasunez egitea zailtzen edota behartzen dutenak inguruetan egotea baztertuko delarik (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 111. artikulua, ekainaren 19ko 15/1998 Legeak aldatua).
3. Bozketa egunean, Hauteskunde-lekuetan hautagai-zerrenden boto-txartelak banatzea (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 89.2. artikulua).

4. Hauteskunde-mahaiaren lokalean armak edo arma gisa erabil daitezkeen tresnak daramatzaten pertsonak sartzea. Horrelakoetan, mahaiburuak aginduko du berehala kanporatzea agindu hori hausten dutenak (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 108.3 artikulua).

I) MAHAIBURUAREN ETA MAHAIKIDEEN AGINTEA.

Mahaiburuak eta, hori ez badago, mahaiburua ordezkatzen duen mahaikideak aginte-ahalten osoa izango du hauteskunde-aretoaren barruan, ordena zaintzeko, hautesleen askatasuna bermatzeko eta legea zaintzen dela ziurtatzeko.

Era berean, behar diren neurriak hartuko ditu botoa askatasunez ematen dela bermatzeko eta lokalen sarbideetan eta inguruetan ordena gordetzeko; orobat, saihestu egingo du inolako hauteskunde-propagandarik egitea edota botoa eman aurretik nori emango dioten hautesleei galdetzea. (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 108.2 eta 111. artikulua, azken hori ekainaren 19ko 15/1998 Legeak aldatuta).

Ertzaintzako indarrek mahaiburua lagunduko dute, behar izanez gero (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 108.2 artikulua).

Inolako agintarik ezin ditu geldiarazi Hauteskunde-mahaietako buruak, kideak edo artekariak, bere eginkizunak bozketa orduetan bete bitartean, delitu gori-gorian izan ezik (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 108.5 artikulua).

Ataletako lokaletan bakea hautsi duen edozein ezbeharra eta eragin duenaren izen-abizenak adierazi beharko ditu mahaiburuak Bilkura-aktan (Eredua: EHDM/8.3) (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 108.4 artikulua).

J) MAHAIBURUAREN ETA MAHAIKIDEEN ESKUBIDEAK.

- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 45. artikulua honako hau dio: *“Hauteskunde-Mahai-puru edo Mahaikidetarako izendatutako inoren konturako langileek eta herrilariak, boto-emanketako eguna, lan-egun bada, egun horretako lanaldirako ordaindutako baime-na izateko eskubidea izango dute. Dena dela, biharamonean lan-eguna bost orduz gutxitzeko eskubidea izango dute”*.
- Hauteskunde-mahaietako mahaiburuek eta mahaikideek hauteskunde-egunean pertsona bakoitzeko **85 euroko ordaina** jasotzeko eskubidea dute; hain zuzen, egun horretan bertan, Euskal Administrazioaren ordezkariak ordainduko die.
- **Gizarte Segurantzaren Sistemak** babesten ditu Hauteskunde-mahaietako mahaiburua eta mahaikideak, hauteskundeetan parte hartzean sor daitezkeen gertakizun eta egoeretatik. Babes hau erabili beharra izango bazenu, jar zaitez harremanetan Eusko Jaurlaritzako hauteskunde-zerbitzuaren Lurralde Arduradunarekin, 012 zenbakira deituta.

K) BOZKETA IRAUN BITARTEAN, MAHAIBURUA, MAHAIKIDEAK ETA ORDEZKOAK EGOTEA EDO EZ EGOTEA (EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO 5/1990 LEGEAREN 101.2 ARTIKULUA).

1. Beharrezkoa da mahaiburua eta mahaikideak etengabe egoitea hauteskunde-aretoan, goizeko zortzietatik bozketa eta ondorengo eginbeharrak amaitu arte.
2. Hala ere, mahaiburuak eta mahaikideek aldi baterako alde egin dezakete, Hauteskunde-mahaiaren arrazoi justifikatua-gatik, baina betiere mahaikide bi bertan daudela.
3. Mahaia osatu eta gero, mahaiko partaide ez diren ordezkariak alde egin dezakete.

- L)** HAUTESKUNDE-MAHAJETAKO KIDEEK DEBEKATUTA DUTE HAUTESKUNDE-PROPAGANDAKO LEGENDAK, IKURRAK ETA ENBLEMAK ERAMATEA EDO ERABILTZEA (EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO 5/1990 LEGEKO 98.5 ART., ABENDUAREN 23KO 11/2015 LEGEAK GEHITUTAKOA).

Hauteskunde-mahaietako lehendakariak eta bokalek ezin dituzte eraman edo erabili zuzenean edo zeharka hauteskunde-propaganda egin dezaketan legenda, ikur, enblema edo goibururik.

- M)** ARTEKARIEN AHALMENAK.

Artekariak Hauteskunde-mahaietan egongo dira eta bozketa eta boto zenbaketaren jardun ona izaten lagunduko dute, mahaiburu eta mahaikideekin batera begiratzuz hauteskunde-ekintzak legearen arabera egiten direla (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 93.1 artikulua).

Hauteskunde-egunaren hasieratik bertatik eta amaitu arte, hautagai-zerrenden ordezkariak ematen zaizkien hautesle-erroldako zerrendek hauteskunde-kolegioaren barruan egon behar dute. Hauteskunde-eguna amaituta, hautagai-zerrenden ordezkariak eraman ahal izango dituzte, baina horrek ez du esan nahi hauteskunde-legeriak baimentzen dituen helburu zehatzetarako erabiltzeko daukaten konpromisoa bete behar ez dutenik.

Legearen arabera, artekariak hau egin dezakete (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 93.2 artikulua):

1. Kopia hauek eska ditzakete: Hauteskunde-mahaia eratzeko Aktaren kopia (Eredua: EHDM/8.1) eta Bilkura-aktaren kopia edo horien zati zehatz baten kopia (Eredua: EHDM/8.3), baita behin-behineko boto-zenbaketaren jakinarazpenak ere (Eredua: EHDM/8.2). Hautagai-zerrenda bakoitzeko kopia edo jakinarazpen bana emango da soilik.
2. Hauteslearen identitatea galdetuko dute jendaurrean.

3. Nahi badute, hautesleen zerrenda zenbakidun batean idatziko dituzte botoa ematen dutenen izen-abizenak, bozketa ordenaren arabera (boto-emaileen zerrenda zenbakiduna ez dena, Eredua EHDM/8.4).
4. Hauteskunde-mahaiaren boto-zenbaketa egin bitartean, mahaiburuak irakurritako boto-txartela eska dezakete aztertzeko asmoz.
5. Egoki deritzoten kexak eta erreklamazioak egin ditzakete, mahaia erabaki behar duen edo gaizki erabakita ulertu duen edozein ekintzari edo hauteskunde-eragiketari buruz, Bilkura-aktan kexa edo erreklamazio hori jasotzeko eskubidea izanik (Eredua: EHDM/8.3).
6. Artekariak ere, saioaren bukaeran eta hauteskundeetako mahaikideekin batera, botoa emateko eskubidea dute, bere eginkizunak betetzen dituzten mahaiari, betiere, mahaiari dagokion barrutiko hautesleak badira.
7. Artekariak, nahi badute, ordezkatzeko duten erakunde politikoaren Ikur edo Itsaskin bat eraman ahal izango dute soinean, ordezkatzeko ari diren erakunde politikoaren siglekin eta sinboloarekin, baina soilik hautesleek identifikatu ahal izan ditzaten, ez hauteskunde-kanpaina egiteko xedez. (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 95. artikulua, abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatutakoa). Ikur horietan honako hau ere egon behar da idatzita: ARTEKARIA-INTERVENTORA edo INTERVENTOR.

Horrenbestez, bozketa egunean, artekariak debekaturik dute adierazietakoez besteko idatziak, sinboloak edo leloak erabiltzea, eta batez ere hauteskunde-propaganda egin lezaketanak. Ezin da babestu alderdi politikoek beren ahaldun edo artekariarentzako uniforme edo jantzi espezifikoak diseinatzea.

N) AHALDUNEN AHALMENAK.

Ahaldunak izango dira hauteskunde-ekintza eta -eragiketa guztietan hautagai-zerrendako ordezkariak (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 94.1 artikulua).

“HEOLOren 93. artikulua ezartzen du ez hautesleketan, ez inguruetan ezin izango egin inolako hauteskunde propagandarik. Alderdi politikoen artekariak daramaten identifikazio apala 93. artikuluari salbuespena da, baina salbuespen honetan ez da sartzen alderdi politikoek beren artekariarentzat uniforme edo jantzi bereziak diseinatzeko eskubiderik talde-uniformetasun horrek duen propaganda-norabidearengatik, ez eta sinbolo alderdikoiak dauzkaten jantziak eraman ere.” (2016/06/15 eta 2017/11/24ko Hauteskunde Batzar Zentralaren Erabakiak).

Lau ahalordetze mota berezi behar ditugu:

1. Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko Idazkaritzak egindako ahalordetzearen izendapen-agiriak ahalmena ematen dio ahaldunari bere eginkizunak barruti edo lurralde historiko batean baino gehiagotan betetzeko.
2. Lurralde Historikoaren Hauteskunde Batzordeko Idazkaritzak egindako ahalordetzearen izendapen-agiriak ahalmena ematen dio ahaldunari bere eginkizunak dagokion lurralde historiko osoan betetzeko.
3. Eskualdeko Hauteskunde Batzordeko Idazkaritzak egindako ahalordetzearen izendapen-agiriak ahalmena ematen dio ahaldunari soilik bere eginkizunak aipatu Eskualdeko Hauteskunde Batzordeko hauteskunde-ataletan betetzeko.
4. Ahalordetzea egiaztatzen duen notarioaren eskritura publikoa.

Horregatik guztiagatik, mahaia egiaztatu beharko du aurkeztutako ahalordetzearen izendapen-agiria, ahalduna bertan egotea legezkoa den ziurtatzeko.

Ahaldunek, artekariak dituzten ahalmen berdinak dituzte eta dagoen artikuluan eta mahaian baino ezin izango dute botorik eman, Hauteskunde-errodan inskribatutakoaren arabera (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 94.4 artikulua).

Ahaldun aritzeko ez da beharrezkoa hauteslea izatea, nahikoa da adin nagusikoa izatea eta eskubide zibilak eta politikoak erabiltzeko inolako eragozpenik ez izatea (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 94.2 artikulua, martxoaren 28ko 1/2003 Legeak aldatua).

Ahaldunek, nahi badute, ordezkatzeko duten erakunde politikoaren Ikur edo Itsaskin bat eraman ahal izango dute soinean, ordezkatzeko ari diren erakunde politikoaren siglekin eta sinboloarekin, baina soilik hautesleak identifikatu ahal izan ditzaten, ez hauteskunde-kanpaina egiteko xedez. (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 95. artikulua, abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatutakoa). Ikur horietan honako hau ere egon behar da idatzita: AHALDUNA-APODERADO edo APODERADA.

“HEOLOren 93. artikulua ezartzen du ez hautesleketan, ez inguruetan ezin izango egin inolako hauteskunde propagandarik. Alderdi politikoaren ahaldunek daramaten identifikazio apala 93. artikuluari salbuespena da, baina salbuespen honetan ez da sartzen alderdi politikoek beren ahaldunentzat uniforme edo jantzi bereziak diseinatzeko eskubiderik talde-uniformetasun horrek duen propaganda-norabidearengatik, ez eta sinbolo alderdikoak dauzkaten jantziak eraman ere.” (2016/06/15 eta 2017/11/24ko Hauteskunde Batzar Zentralaren Erabakiak).



III. BOZKETA

A) BOZKETA HASTEAN.

Bozketa **goizeko bederatzietatik arratsaldeko zortzietara** izango da, etengabe (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 101. artikulua).

Mahaia osatu eta gero, bozketa hasiko da mahaiburuak hau esan ondoren: 'Bozketa hasten da', nahiz, 'Empieza la votación'.

B) BOTOA EMATEKO ESKUBIDEA EGIAZTATZEA (EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO 5/1990 LEGEAREN 105. ARTIKULUA, EKAINAREN 19KO 15/1998 LEGEAK ALDATUTA).

Botoa emateko eskubidea hautesleek egiaztatuko dute, baldintza hauek betez:

1. Mahaiei dagozkien Hauteskunde Erroldako zerrendetako ale egiaztatuetan hautesleak inskribatzeagatik.
2. Hautesleen identitatea egiaztatzeagatik. Hala nahi duten bo-kalek eta artekariak NANA, pasaportea edo titularraren argazkia duen gidabaimena erakutsiz egiaztatuko dute nortasuna. Beste dokumentu mota batek edota ezagutzeko ekintza batek ezin du ordeztu adierazitako hiru dokumentuen bidezko identifikazioa eta, ondorioz, mahaia ezin izango du botoa

onartu. Mahaiak ez badu betetzen lehen adierazitakoa, botoa ematen duen identitatea kreditatzeko balia bidei buruz, hauteskunde-delitua edo administrazioko arau-haustea bete dezake. Delitua bada, 3 hilabetetik urtebete arteko espetxealdi zigorra ezarriko zaio edo 6 hilabete 24 hilabete arteko isuna (Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Legearen 26. artikulua). Administrazioko arau-haustea bada diru-isuna ezarriko zaio (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 132. artikulua, abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatua).

Ezinbesteko baldintza ez da aipatutako agiriak indarrean egotea, iraungitako agiriekin ere botoa eman baitezakete, boto-emailearen identitateari buruzko zalantzarik ez dagoen bitartean. Hala ere, izapidetzen ari den NANaren frogagirik ez du balio, boto-emailearen argazkirik ez dagoelako. Era berean, ez da onartuko lehen aipatu dokumentuen kopia.

3. Bozketa egunean 18 urte beteta izatea egiaztatzeagatik, NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren bidez.

Hauteslea ez badago Erroldako zerrendan, botoa eman dezake haxe aurkezten badu bakarrik:

- **Erroldatze ziurtagiri berezia:**

Hautesleak [Erroldatze ziurtagiri berezia](#) aurkezteak ordezka dezake Mahaiaren Hauteskunde Erroldako zerrendetan izena ematea, Mahaiaren Hauteskunde Erroldan egoteko eskubidea egiaztatzen baitu; horrek botoa ematen utziko dio (Ildo horretatik, ikusi atal honetako C puntua).

- **Epai judiziala:**

Era berean, hautesleak dagokion Ataleko Erroldan egoteko eskubidea egiaztatzen dion [epai judiziala](#) aurkezteak ordezka dezake Mahaiaren Hauteskunde Erroldako zerrendetan inskribatzea; horrek botoa ematen utziko dio. Mahaiak hautesleari eskatu beharko dio [epai judizial hori](#), hauteskundeeetako gainerako agiriekin batera sartzeko 1. gutun-azal marroian (Eredua: EHDM/8.5).

Horrez gain, honako hau eduki beharko da kontuan:

- Posta bidezko botoa ematea eskatu dutenek, dela Espainian daudenek dela aldi baterako atzerrian daudenek, ezingo dute hauteskundemahaian pertsonalki botorik eman, haiei dagokien hauteskundemahaiko hautesleeroldan izen emanda agertuta ere. Kasu horietan, hautesleeroldaren zerrendan "C" hizkia agertuko da haien izenaren ondoan, edo bestela, "hauteskundemahai horretan posta bidezko botoa eskatu duten hautesleen zerrendan" agertuko da, hautesleeroldako zerrendaren eranskin gisa.
- Artekari diharduten hauteskundemahaiari dagokion hautesbarrutiaz besteko barruti batean erroldatutako artekariak ezingo dute artekari moduan diharduten hauteskundemahaian botorik eman, ez baitira hautesbarruti horretako hautesleak.
- Artekari moduan jarduten duten hauteskundemahaiko hautesleeroldako zerrendan dauden artekariak hauteskundemahai horretan bozkatu ahal izango dute, hauteskundemahai horretako hautesleak baitira.
- Artekari diharduten hauteskundemahaiak besteko hauteskundemahai batean erroldatuta dauden artekariak jarduten duten mahaian bozkatu ahal izango dute (posta bidez bozkatu ez badute), mahai horretan erroldatuta ez badaude ere, baldin eta bi mahaiak hautesbarruti berari badagozkie. Nolanahi ere, ezingo dute botorik eman erroldatuta dauden mahaian.
- Artekariak ezin dute behin baino gehiagotan bozkatu eta hauteskunde berean bitan edo gehiagotan bozkatzea hauteskunde delitua da.

Bukatzeko, ezin da ahaztu:

- Artekari, ahaldun edo boto-emaile batek jendaurrean egingo dako erreklamazioa badago, botoa eman behar duenaren identitateari buruzko zalantza egoteagatik, mahaiburuak eta mahaikideek botoen gehiengoz erabakiko dute, egiazta-

tzeko agiriak eta bertako boto-emaileek aurkez dezaketen lekukotasuna ikusita.

- Erroldako zerrendan eta erakutsitako NANan dauden izenak eta abizenak bat ez badatoz, abizenaren euskal ortografiari gaztelaniazko ortografia ez dagokiolako edo izena agiri desberdinetan bi hizkuntza ofizialetan egoteagatik, edo bes-telako arrazoiagatik, mahaiaik egiaztatu beharko du botoa ematen duenaren identitatea (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 106.2. artikulua).
- Hautesleak ezin du botoa eman Hauteskunde Erroldaren arabera dagokion mahaian baino. Botoa erabat isilpekoa da eta pertsonala, beraz inork ezingo du botoa eman beste baten orde.

C) ERROLDAKO ZIURTAGIRI BEREZIAK HAUTESKUNDE-MAHAIETAN BOZKATU AHAL IZATEKO.

Hauteskunde Erroldaren Bulegoko Ordezkaritza Probintziales barrik ematen dizkiete hautesleei Erroldako ziurtagiri bereziak eta bi motakoak izan daitezke:

- Mahaiaren Hauteskunde Erroldan alta ematea:** Ziurtagiri horren bidez herritarrak frogatu dezake indarreko Hauteskunde Erroldan izena eman duela, nahiz eta, edozein dela arrazoia, bere daturik ez agertu mahaiei banatzen zaizkien Erroldako zerrendetako ale ziurtatuetan.
Mahaiaren Bilkura-aktari dagokion atalean zehaztu behar da Mahaiko Erroldan alta diren aurkeztutako Erroldako ziurtagiri berezien kopurua (Eredua: EHDM/8.3).
- Mahaiaren Hauteskunde Erroldan akats materialak zuzentzea:** horrelakoetan, hauteslea badago Mahaiaren Hauteskunde Erroldako zerrendetan, baina hori identifikatzeko Errolda horretako datuetan akats materiala dago (izen-abizenak, helbidea edo jaiotze-data). Horren bidez zuzentzen dira Mahaiaren Hauteskunde Erroldako akats material horiek.

Baliozkoa izango da altako ziurtagiriaren edo hutsen zuzenketaren jatorrizkoa edo dagokion udaletxearen bitartez faxez jasotakoa.

Bozketa izan bitartean, mahaiaik jaso beharko ditu hautesleek aurkeztutako Erroldako ziurtagiri berezi guztiak eta 1. gutun-azal marroian sartuko ditu hauteskunde-agiri guztiekin batera (Eredua: EHDM/8.5).

D) BOZKETA GARATZEA.

Botoa isilpekoa izango da (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 104.1 artikulua).

Hauteslea, nahi izanez gero, hauteskunde-kabinara joan daiteke eta aukeratutako hautagai-zerrendaren boto-txartela hartu, gutun-azalean sartu eta botoa emango du (104.2 artikulua).

Hautesleak banan-banan hurbilduko dira mahaira eta izen-abizenak adieraziko ditu (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 106.1. artikulua).

Mahaikideek eta artekariek, nahi duten guztietan, Hauteskunde Erroldako zerrendak eta aurkeztutako Erroldako ziurtagiriak edo epai judizialak aztertuko dituzte, hautesleek botoa emateko duten eskubidea egiaztatzeko asmoz.

Hauteslearen identitatea eta Hauteskunde-mahaian botoa emateko eskubidea egiaztatu eta gero, botoaren gutun-azala eskura emango dio Mahaiburuari. Ondoren, jendearen begien bistatik ezkutatu gabe, ozenki adieraziko ditu hauteslearen izen-abizenak eta, 'Botoa ematera doa' esanaz, hautatzaileari emango dio gutun-azala, hautestontzian sar dezan. (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko 5/1990 Legeko 107.1 art., abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatutakoa)

Hautesleek irakurtzen ez badakite edo boto-txartela mahaiburuari ematea galarazten dion ezgaitasun fisikoa badute, konfiantzazko pertsona batek lagunduta bertara daitezke; horrek emango dio boto-txartela mahaiburuari (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko 5/1990 Legeko 104.3 art., abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatutakoa, eta Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko 5/1990 Legeko 109. art.)

Hauteskunde-mahaietako kideak desgaitasunen bat duten hautesleek bozkatzeko duten eskubidea ahalik eta autonomia handienez balia dezaten bermatuko dute, eta, horretarako, beharrezko diren arrazoizko egokitzapenak egingo dituzte.

“Hauteskunde-mahaiek Mahai horri dagokion hautesle-errolan jasota dagoen edozein pertsonaren botoa jaso behar dute. Desgaitasunen bat dutenek laguntzen dituen pertsona batez edo hauteskunde-eskutitzak Mahaikideei emateko bide materialaz balia dezakete.

Mahaiari esleituta dagoen Mahaikide edo artekari edo ahaldun batek uste badu botoa ez dela kontziente, aske eta borondatezkoa izan, bilkura-aktan jaso ahal izango du, baina ez du botoa hautesontzian sartzearagotziko. Jasota-geratzeko adierazpen honetan aktak hauteslea identifikatuko du Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakiaz bakarrik edo, hala behar denean, aurkezten duen nortasun-agiriarekin.” (JEC 7/2019 Jarraibidea).

Ikusteko urritasuna eta Braille sistema ezagutzen duten pertsonen botoa emateko, Diputatuen Kongresurako eta Senatutik hauteskundeetan aurreikusitako boto pertsonala eta irisgarria emateko prozedura erabil dezatela (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeko 104.3 art., abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatutakoa)

Hauteskundeetako mahaiburuak edo, hala badagokio, mahaikideren batek beharrezko agiriak dituen maleta bat emango dizkio ikusteko urritasuna duen hautesleari, baldin eta boto prozedura horretaz baliatu nahi izana Eusko Jaurlaritzari jakinarazi badio, eta NANA erakutsiz Hauteskunde-mahaian dagoen interesdun pertsonen zerrendan egiaztatu aurretik.

Emandako agirietan horren erabilerari buruzko azaltze-jarraibideak aurkituko dituzte, Braille sisteman idatzita.

Dena dela, mahaikideek adierazi eta erraztuko diote agiri horiek erabiltzeko gaitutako hauteskunde-lekuaren eremura sartzeara.

Boto-aukera hautatu eta gero, botoa emateko hautesle guztien prozedura bera jarraituko dute.

Mahaiak eskatu duten ikusmen-urritasuna duten pertsona guztiei emateko hainbeste maleta ez badauzka, Eskualdeko Hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar du.

Gogoratu:

- Dokumentazioa barnean duen maleta jasotakoan, hautesleak, hala nahi baldin badu, lokaletik kanpo eraman dezake eta geroago itzuli Mahaira bere botoa ematera.
- Pertsona horiek, nahi baldin badute, konfiantzako pertsona batek laguntzeko aukera balia dezakete boto-eskubidea erabili ahal izateko.
- Bozketaren ondoren, boto-emaileak erabilitako dokumentazioa duen maleta berarekin eramatea komeni da, emandako botoaren sekretua bermatu ahal izateko.

E) OHARPENAK, BOTO-EMAILEEN ZERRENDA ZENBAKIDUNEAN.

Botoaren gutun-azala hautestontzian sartu eta gero, mahaikideek botoa ematen dutenen izen-abizenak jasoko dituzte Boto-emaileen zerrenda zenbakidunean (Eredua: EHDM/8.4), bozketa ordenaren arabera eta Hauteskunde Erroldako Zerrendetan duten zenbakia ere adieraziko dute (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 107.2 artikulua), edo **“ZIURTAGIRIA”** edo **“EPAIA”** terminoak adieraziko dituzte, botoa emateko eskubidea Erroldako Ziurtagiri Bereziaren edo Epai Judizialaren bidez egiaztatzen bada.

Edozein hauteslek du begiratzeko eskubidea, bere izen-abizenak ondo idatzi diren mahaiak osatu duen Boto-emaileen zerrenda zenbakidunean (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 107.3 artikulua).

F) BOZKETA ETETEA.

Hauteskundeetako mahaiburuak bozketa eten beharko du, hautagai-zerrendaren baten boto-txartelik, edozein arrazoiengatik,

ez egoteaz ohartzen bada eta dagokion hauteskunde-zerrendako ahaldun edo artekariak emandako boto-txartelez osatzerik ez badute.

Eteteko arrazoiak konpondu eta gero, berriz ere hasiko da. Etenaldi hori ordubete baino luzeagoa balitz mahaiburuak adostutako denboraz luzatuko da (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 101.3 artikulua).

G) BOZKETA BERTAN BEHERA UZTEA.

Ezinbesteko arrazoa beharko da bozketa bertan behera uzteko edo ez hasteko (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 102.1 artikulua).

Bozketa bertan behera uztea beti erabakiko da mahaiburuak arrazoitutako idazkiaren bidez eta horrek, berehala, idazkiaren kopia bidaliko dio Lurralde Historikoaren Hauteskunde-Batzordeari, alegatutako arrazoiak egiazta ditzan.

Bozketa bertan behera utziz gero, emandako boto-txartelak deuseztatuko dira (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 102.2 artikulua).

H) HAUTESKUNDEMAHAIARI JARRITAKO ERREKLAMAZIOAK

1. Hautesleek beste hautesle baten nortasunaren inguruan suerta litezkeen zalantzei buruzko erreklamazioak baino ezingo dituzte egin, edo hauteskunde-mahaiak hautesle horren boto esku-bidearen egikaritzari emandako ezetzari buruzkoak. Hauteslea hauteskunde-mahaiari eginiko erreklamazioan tematzen bada, ordea, lehendakariak jarrera hori utz dezala eskatuko dio, eta beharrezkoa badu, agintaritzaren ajenteei aginduko die erreklamazio egilea hauteskundelokaletik atera dezatela.
2. Hautesleen sufragio aktiboaren egikaritzari murrizketarik eragin liezaiokeen bozketaren edozein egintzari buruz artekariak nahiz ahaldunek eginiko erreklamazioen aurrean, hauteskun-

demahaiak gehiengoz ebatziko du, eta bilkuraren aktan jasoko du hartutako erabakia, baita erreklamazioaren zergatia ere (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen 5/1990 Legearen 106.4 artikulua, abenduaren 23ko 11/2015 Legeak emandako idazketan).

3. Hauteskundemahaiko lehendakariak ez du inolako kontsultarik onartuko. Soilik onartuko ditu botoeskubidearen egikaritzaren pertsonalari dagozkionak eta hautagaitzen artekariak eta ahalduak eginikoak. Hautesleek, hala badagokie, Eskualdeko Hauteskunde-batzordeari aurkeztu ahal izango dizkiete euren kontsultak. Hauteslea hauteskunde-mahaiari eginiko erreklamazioan tematzen bada, ordea, lehendakariak jarrera hori utz dezala eskatuko dio, eta beharrezkoa badu, agintaritzaren ajenteei aginduko die erreklamazio egilea hauteskunde lokaletik atera dezatela.

I) BOZKETA AMAITZEA.

20.00etan, Lehendakariak ozenki esango du 'bozketa bukatzera doa', eta ez dio utziko beste inori lokalean sartzen. Bertan dauden hautesleren batek oraindik ez al duen bozkatu galdetuko du lehendakariak, eta onartu egingo dira horren ondoren emandako botoak (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeko 112.1 art., abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatutakoa).

J) POSTA BIDEZKO BOTOA.

1. Gutun-azalak ireki eta gero, hautestontzian sartu.

Bozketa 20:00etan amaitu eta gero, mahaiko burua banan-banan hasiko da aztertzen Espainian bizi diren euskaldunen posta bidezko botoen gutun-azalak, ordura arte Mahaian utzita, eta egiaztatu egingo du Hauteskunde-mahaiko buruari zuzendutako gutun-azal horiek posta ziurtatuaren bidez bidali diren kreditatzen duen posta-bulegoaren zigilua duten.

Era berean, aldi baterako atzerrian bizi diren hautesleek posta bidez bidalitako botoaren gutun-azalean, mahaia egiaztatuko du

atzerriko herrialdearen posta-bulego baten zigilu-markak edota bestelako inskripzio ofiziala argi dagoen, indarreko araudiak aurreikusitako bozketa-prozeduraren arabera; horrek ziurtatuko baitu herrialde horrek botoa bidali duela bozketa izan baino hiru egun lehenago.

Hala ere, bi kasuetan, gutun-azal horrek posta ziurtatuaren zigilua ez badu edo zigilu-marken denbora-betekizuna betetzen ez badu, baztertu egingo da ireki gabe, eta deuseztatuko da, aurka egin ezean.

Ondoren, gutun-azalak onartu eta gero, mahaiari zuzendutako gutun-azala irekiko da eta bertatik aterako da Erroldan hauteslea inskribaturik dagoela dioen ziurtagiria, dagokion Hauteskunde-Erroldaren Bulegoko Ordezkaritzak emana. Gero, egiaztatu egingo da posta bidezko botoa eman duena Hauteskunde Erroldako Zerrendan dagoen eta, gainera, botoa posta bidez emateko eskatzaile gisa agertzen den; mahaiburuak sartuko du hautes-tontzian boto-txartela duen gutun-azala, ireki gabe. Posta bidezko botoa eman duen hauteslea Boto-emaileen Zerrenda Zenbakidunean sartu beharko da (Eredua: EHDM/8.4).

Mahaiak, jasotako atzerriko posta bidezko botoa irekitzean, gorde egin beharko du frankeo gastuak itzultzeko inprimakia, hala korik aurkitzen badu, eta horretarako beren-beregi prestatutako gutun-azal zuri batean sartu (EHDM/8.12 ered.). Gutun-azal hau, 3. zenbakia duen gutun-azal marroiren barruan sartu behar da (EHDM/8.5 ered.).

2. **Onartzea** (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 113. artikulua).

Hauteskunde-mahaiak EZ DU ONARTUKO posta bidezko botoa, kasu hauetan:

- Posta bidezko botoa ematen duena Mahaiaren Hauteskunde Erroldako zerrendetan ez badago.
- Mahaiari bidalitako gutun-azalean ez badago Hauteskunde Erroldako Bulegoko Ordezkaritzak egindako Erroldatze ziurtagiri-inprimakia, hauteslea Mahaiko Erroldan dagoela esaten duena.

- Posta bidezko eskabidea Mahaiko Erroldako Zerrendan agertzen ez bada.

Aurreko kasuetan, hau da, Hauteskunde-mahaiak posta bidezko botoa ez onartzea erabakitzen duenean, botoa ez da hauteskontzian sartuko ezin baita hartu baliozko bototzat, ezta balio gabeko bototzat edota boto zuritzat hartu, boto hori zenbatzea ezinezkoa baita, beraz, posta bidezko botoaren gutun-azala deuseztatuko da, aurka egin ezean.

3. **Aurka egitea** (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 114. artikulua).

Posta bidezko botoei aurka egingo zaie banan-banan, posta bidezko boto guztiei batera egitea baztertuko delarik. Hauteskunde-mahaiak botoen gehiengoz erabaki beharko du esandako aurka egite hori onartzen duen ala ez.

- **Kontra egitea onartzen ez bada**, mahaiburuak boto-txartelaren gutun-azala sartuko du hauteskontzian, ireki gabe, isilpekoa izan behar baitu, eta bakarrik gordeko dira mahaira bidalitako gutun-azala eta boto-emaile horri dagokion Hauteskunde Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzaren ziurtagiria, hauteskunde-agiriekin batera sartzeko. Horretaz gain, Bilkura-aktan jasoko dira mahaiaren erabakia (Eredua: EHDM/8.3) eta boto horri aurka egiteko arrazoia.
- **Mahaiak aurka egitea onartuz gero**, boto-txartela duen gutun-azala ez da hauteskontzian sartuko eta mahaiari bidalitako gutun-azalarekin eta Mahaiko Erroldan hauteslea inskribaturik dagoelako ziurtagiriarekin batera joango da, Lurralde Historikoaren Hauteskunde Batzordeak azter ditzan eta aurka egitea erabaki dezan. Horrelakoetan, mahaiak onartu duen aurka egiteari dagokion posta bidezko botoa ezin da boto baliouduntzat, ezta baliogabeko bototzat ezta boto zuritzat hartu, boto-emailea ezin baitu zenbatu.

Horren ondorioz, mahaiak onartutako aurka egiteari dagokion posta bidezko botoa gordeko da 1. gutun-azal marroian, hauteskun-

de-agiriekin batera sartuko baita (Eredua: EHDM/8.5), Lurralde Historikoaren Hauteskunde-Batzordeak jakin dezan eta, agiriak ikusita, horrek ebatz dezan.

- K) MAHAIKIDEEK, ARTEKARIEK BOTO EMATEA (EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO 5/1990 LEGEAREN 112.3 ARTIKULUA, ABENDUAREN 23KO 11/2015 LEGEAK ALDATUA).**

Ondoren, mahaia osatzen dutenek eta hauteskunde-barrutian hautesle diren artekariak emango dute botoa, boto-emaileen zerrenda zenbakidunean zehaztuta (EHDM/8.4) mahaiko erroldan agertzen ez diren artekariak hauteskunde-mahaia (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 92.2 artikulua).

- L) BOTO-EMAILEEN ZERRENDA ZENBAKIDUNEAN SINATZEA.**

Bozketa amaitu eta gero, mahaikideek eta artekariak sinatuko dute Mahaiko boto-emaileen zerrenda zenbakiduna (Eredua: EHDM/8.4), orrialde guztien marjinan eta idatzitako azken izenaren azpi-azpian (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 112.4 artikulua).

Boto-zenbaketaren eginkizun guztiak amaitu eta gero, aipatu Boto-emaileen zerrenda zenbakidunaren alea sartuko da 1. gutun-azal marroian (Eredua: EHDM/8.5).

- M) HAUTESLEEN BOZKETA-ZIURTAGIRIA (EREDUA: EHDM/8.11).**

Hautesleek mahaiburuari eskatzeko eskubidea dute botoa eman izanaren ziurtagiria berehala ematea edo, bestela, botoa onartu ez izanaren ziurtagiria ematea.

Emango diren bozketaren ziurtagiri guztiek mahaiburua sinadura izango dute, edo, bestela, mahaikideren batena.

N) HAUTESKUNDE-ARETOAN SAR EDO EGON DAITEZKEEN PERTSONAK.


Bozketa izan bitartean, hauek sar daitezke Hauteskunde-aretoan (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 109. artikulua, abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatua).

- Mahaiko hautesleria.
- Hautagai-zerrenden lurralde-ordezkariek.
- Hautagai izendatuak.
- Hautagai-zerrenden ahaldunak.
- Hautagai-zerrenden artekariek.
- Hauteskundearekin zerikusia duen edozein ekintzaren fedemateko notarioak.
- Hauteskunde-batzordeetako kideak.
- Instrukzio-epaileak eta horien ordezkariek, beraien karguak hala eskatzen badu.
- Agintaritzako agenteak, lehendakariak hala eskatzen duenean.
- Beste zeregin batzuen artean, euskal administrazioak hauteskundeei buruzko informazioa biltzeko izendatutako pertsonak.
- Gaixo, elbarri eta irakurtzen eta idazten ez dakitenen laguntzaileak.
- Lokaletan hauteskunde-materiala mantentzeko ardura dutenak.

O) HEDABIDEAK HAUTESKUNDE-KOLEGIO EDO HAUTESLE-KUETAN EGOTEA. (HAUTESKUNDE-BATZORDE ZENTRALAREN ERABAKIA, 2015-12-15EKOA).

“Hedabideek, behar bezala akreditatuta, hauteskunde-kolegioetan bozketaren garapenari buruzko hartze orokor bat egin ahal dute, baina, gertakari publikoa denez, pertsona zehatzen irudiak hartuz gero, irudi horiek bigarren mailako gisa agertu behar dira. Dena den, kargu publikoa edo entzuteko handiko lanbidea nahiz garrantzi publikoa duten pertsonak arau orokor horretatik salbuetsita daude, baldin eta irudiak ekitaldi publiko batean edo jendaurrean zabalik dauden tokietan jasotzen badira. Dena den, hautesleei elkarriketak egiteko eskatzen bazaie hauteskunde-kolegioetatik kanpo egin behar dira.

Hauteskunde-mahaiko lehendakariak, ondorio horietarako, HAOLoren 91. artikulua ematen dizkien ahalmenak izango dituzte.”



IV. BOTO-ZENBAKETA ETA BIRKONTAKETA

A) BOTO-ZENBAKETAREN IZAERA PUBLIKOA.

Ordura arte egindako hauteskunde-eragiketak amaituta, mahaiburuak bozketa amaitutzat emango du eta boto-zenbaketa hasiko da; jendaurrekoa izango da, nahi duen guztia egon baitaiteke, baldin eta mahaiburuaren aburuz boto-zenbaketa egiteko tokian sartzen badira (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 117.1 artikulua).

Mahaiburuak ulertuko balu boto-zenbaketa ezin dela egin bakea hautsi delako, aretoa hustea agindu ahal izango du.

Hori gertatuz gero, mahaiko kideez gainera, bertan egoteko esku-bidea hauek soilik izango dute: hautagai-zerrendetako lurralde-ordezkariek, Artekariak, Ahaldunak, notarioak, Mahaiburuak deitutako agintaritzaren agenteak, Hauteskunde Batzordetako kideak, Instrukzio-epaileak edo horien ordezkioak (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 117.2 artikulua).

B) BOTO BALIOGABEA ETA ZURIA.

1. **BOTO BALIOGABEA IZANGO DA** (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeko 115 art., abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatutakoa):
 - Eredu ofizialaren desberdina den gutun-azalean edo boto-paperean emandako botoa.
 - Gutun-azalik gabeko boto-paperean emandako botoa.
 - Hautagai desberdinen boto-paper bat baino gehiago duen gutun-azalean emandako botoa. Hautagai beraren boto-paper bat baino gehiago duen gutun-azalen bat balego HAUTAGAI HORRENTZAKO BOTO BALIODUN BAKARRA zenbatuko da.
 - Hautagaien izenak aldatuta, gehituta edo ezabatuta edo haien kokapen-ordena aldatuta duen boto-paperean emandako botoa.
 - Irainak edo botoarekin zerikusirik ez duen beste edozein adierazpen edo legenda idatzita duen botoa.
 - Borondatezko edo berariazko edozein aldaketa eginda duen botoa, kontuan hartuta, dena den, ondorengo 2. atalean esaten dena.
 - Mahaiari ez dagokion hauteskunde-barruti bateko boto-paperean emandako botoa.
 - Gutun-azalak, kanpoaldean, ezagutzeko seinaleren bat duenean.
2. **EZ DA BOTO BALIOGABEA IZANGO** eta baliodun gisa zenbatuko da seinale edo markaren bat egin zaion boto-paperean emandako botoa, baldin eta zalantzarik sortzen ez badu hauteslearen botoaren esanahiari buruz. (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeko 115.b art., abenduaren 23ko 11/2015 Legeak aldatutakoa). Hautagaietako baten ondoan seinale, gurutze edo ikorosti bat daukan boto-paperean bidez emandako botoa balioduna izango da, baldin eta marka horiek boto-paperearen konfigurazioa aldatu ez duten edo hautagaien edo alderdi politikoen aurkako gaitzespena adierazten ez duten garrantzirik gabeko markatzat hartzen badira (Hauteskunde-batzorde Zentralaren 1/2012 Instrukzioko 2.atala)

3. BOTO ZURIA IZANGO DA (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 116. artikulua, ekainaren 19ko 15/1998 Legeak aldatuta):

- Boto-txartelik ez duten gutun-azala.
- Hauteskunde-barrutian legez kendutako hautagai-zerrenda baten aldeko botoa.

C) MAHAIKO BOTOAK ZENBATZEKO PROZEDURA.

Mahaiburuak, bozketa bukatu eta berehala, boto-zenbaketa egiteari ekingo dio, gutun-azalak hautestontzitik banan-banan atereaz. Gutun-azalak ireki eta gero, ozenki irakurriko du botoa eman dion hautagai-zerrendaren izena. Mahaiburuak boto-txartela erakutsiko die mahaikideei eta bertako artekari eta ahaldunei (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 118.1 artikulua).

Boto-zenbaketa eten gabe egin beharko da (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 118.2 artikulua).

Boto-zenbaketa egingo den tokia egongo da bertako hautesleak inguruan bueltaka ibiltzeko moduan.

Boto-zenbaketa bukatu ondoren, hautestontzitik ateratako gutun-azalen guztizko zenbatekoa eta Mahaiaeren zerrenda zenbakidunean erregistratutako boto-emaileen kopurua erkatuko dira, bat etorri behar baitira. Horrela ez bada, Bilkura-aktan emango da gorabehera horren berri (Eredua: EHDM/8.3), bai hautestontzitik ateratako botoen gutun-azalak zein Mahaiko zerrenda zenbakidunean erregistratutako boto-emaileen kopurua (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 118.3 eta 120.1.j artikulua).

Boto-zenbaketa izan bitartean, mahaiburuak irakurritako boto-txartelaren edukiari buruz, bere eginkizunak betetzen dituen notarioren batek, hautagai-zerrenda bateko ordezkari edo kideren batek zalantzak izanez gero, txartela aztertu ahal izango du (Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 118.4 artikulua).

Boto-zenbaketa amaituta, mahaiburuak galdetuko du boto-zenbaketaren aurka kexarik dagoen. Kexak mahaiburuaren eta bi mahaikideen gehiengoz erabakiko dira (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 118.5 artikulua).

D) MAHAIKO EMAITZAK ALDARRIKATZEA (EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO 5/1990 LEGEAREN 119.1 ARTIKULUA).

Boto-zenbaketa egin eta aurkeztutako kexak erabaki eta berehala, mahaiburuak ozenki iragarriko ditu boto-zenbaketaren emaitzak, datu hauek emango dituela:

- Mahaiko Hauteskunde Erroldako hautesleen kopurua (Hauteskunde Erroldako zerrendekin batera doan Hauteskunde Erroldaren Bulegoko informazio-oharrean dauden datuak).
- Mahaiko zerrenda zenbakidunean erregistratutako boto-emaileak.
- Baliogabeko botoak guztira.
- Emandako boto baliodunak guztira.
- Boto zuriak.
- Hautagai-zerrenda bakoitzeko botoak.

Ondoren, Mahaiak egiaztatuko du Mahaiko zerrenda zenbakidunean erregistratutako boto-emaileak bat datozela baliogabeko botoen eta emandako boto baliodunen batuketarekin, eta, era berean, azken horiek bat datozela boto zurien eta hautagai-zerrendek lortutako botoen batuketarekin.

E) EUSKAL ADMINISTRAZIOAREN ORDEZKARIAK.

Boto-zenbaketa egin eta berehala, mahaiburuak bete beharko du **Behin-behineko boto-zenbaketaren jakinarazpena (Eredua: EHDM/8.2)** eta Euskal Administrazioak izendatutako pertsonari eman beharko dio, horren ordezkari-tza kreditatu eta gero, bakar-bakarrik Eusko Jaurlaritzak behin-behineko emaitzak jendauerrean iragartzeko asmoz (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 119.2 artikulua).

F) BEHIN-BEHINEKO BOTO-ZENBAKETA JAKINARAZTEA (EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO 5/1990 LEGEAREN 119.2 ARTIKULUA).

Horren ostean, Hauteskunde-mahaiko buruak behin-behineko jakinarazpen hauek emango ditu, okerrik egin gabe:

1. Jendaurrean jartzeko, Hauteskunde-aretoaren kanpoaldean edo sarreran (Eredua: EHDM/8.2).
2. Eskatzen duten Artekari, Ahalduen edo hautagai-zerrendetako ordezkariak edo kideak, kontuan hartuz hautagai-zerrendako jakinarazpen bakarra emango dela (Eredua: EHDM/8.2).

G) BILKURA-AKTA (EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO 5/1990 LEGEAREN 120. ARTIKULUA, EKAINAREN 19KO 15/1998 LEGEAK ALDATUTA).

Hauteskunde-mahaiaren boto-zenbaketa amaitu ondoren eta aipatu Behin-behineko boto-zenbaketaren jakinarazpenak eman eta gero, Bilkura-akta idatziko da (Eredua: EHDM/8.3) eta osorik beteko da; zehazki hauek izango ditu:

- Mahaiko Hauteskunde Erroldako hautesleen kopurua.
- Boto-emaileak = hautestontzitik ateratako botoen gutun-azalak.
- Baliorik gabeko botoen zenbatekoa.
- Boto baliodunak = boto zurien eta hautagai-zerrenda guztiek lortutako botoen batuketa.
- Boto zurien zenbatekoa.
- Hautagai-zerrenda bakoitzak lortutako botoak.
- Mahaiko zerrenda zenbakidunean erregistratutako boto-emaileak guztira.
- Aurkeztutako Erroldako ziurtagiri berezien kopurua, Hauteskunde Erroldan alta direnak.
- Aurkeztutako epai judizialak.
- Botoa eman duten artekariak, nahiz eta Mahaiko Erroldako zerrendetan inskribaturik ez egon eta Mahaiko zerrenda zenbakidunean erregistratuta egon.

Era berean, bozketari eta Mahaiaren boto-zenbaketari buruzko gorabeherak eta kexak eta erreklamazioak jasoko dira, zerrendetako ordezkariak, hautagai-zerrendetako kideak, bere ahaldunek, artekariak eta hautesleak eginak, baita Mahaiak horiei eta boto bereziei buruz hartutako arrazoizko erabakiak ere, baldin badaude.

Hautestontzitik ateratako botoen gutun-azalen kopurua eta Mahai-ko zerrenda zenbakidunean erregistratutako boto-emaileena bat ez badatoz, horren berri emango da Bilkura-aktaren gorabeheren atalean.

Era berean, Bilkura-aktari gehituko dira artekariak izendatzeko taloi-orriak edo izendapenen kopiak eta, horien ezean, artekariak Hauteskundeetako mahaiburuari aurkeztutako izendapen-agiriak.

Bilkura-akta bete eta gero, hautagai-zerrendetako ordezkari eta kide guztiek, baita bere ahaldunek eta artekariak ere, Bozketaren Bilkura-aktan (Eredua: EHDM/8.3) edo horren antzeko agirietan jasotakoaren kopia doan eta berehala emateko eskubidea izango dute, eta Mahaiek ez dute eginbehar hori ez betetzeko aitzakiarik jartzerik izango.

Bukatzeko, hautestontziko boto-txartelak edonola apurtuko dira bertaratu direnen aurrean. Hala ere, EZIN DIRA APURTU boto-txartel hauek:

- Baliogabekotzat jo direnak (boto baliogabeak).
- Erreklamazio edo zalantzaren bat jaso dutenak.

Apurtuko ez diren boto-txartelekin hauxe egin beharko da:

- Mahaiburuak eta bi mahaikideek sinatuko dute boto-txartel horien atzealdean.
- Bilkura-aktari gehituko dira (boto-zenbaketa bukatzean idatzi eta gero) eta 1. gutun-azalean sartuko dira.



V. HAUTESKUNDE-AGIRIAK PRESTATZEA ETA EMATEA

A) HAUTESKUNDE-AGIRIAK BANATZEA 4 GUTUN-AZAL ZENBAKIDUNETAN (EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO 5/1990 LEGEAREN 121. ARTIKULUA).

Boto-zenbaketa bukatu ondoren eta aipatu inprimaki guztiak bete eta gero, mahaia hasiko da hauteskunde-agiriak banatzen, **lau gutun-azal berezietan** (Eredua: EHDM/8.5) , eta horietako bakoitzak hauxe izango du:

- **1. GUTUN-AZALA (MARROI KOLOREKOA)**
- Hauteskunde-mahaia osatzeko aktaren jatorrizkoa (Eredua: EHDM/8.1).
- Bilkura-aktaren jatorrizkoa (Eredua: EHDM/8.3).
- Mahaiko Hauteskunde Erroldako zerrenda ziurtatuak.
- Boto-emaileen zerrenda zenbakiduna (Eredua: EHDM/8.4).
- Boto-txartelak, baliogabetzat jotakoak edo erreklamazioren bat izan dutenak.
- Hautesleek aurkeztutako Erroldako ziurtagiri bereziak eta epai judizialak.
- Artekariak izendatzeari dagokionez, mahaiburuak jasotako taloi-orriak edo izendapenen kopia eta, horien ezean, artekariak mahaiari aurkeztutako egiaztagutunak.

- **2. GUTUN-AZALA (MARROI KOLOREKOA)**
 - Hauteskunde-mahaia osatzeko aktaren hitzez-hitzezko kopia (Eredua: EHDM/8.1).
 - Bilkura-aktaren hitzez-hitzezko kopia, mahaikideek egiaztatuta eta baimenduta (Eredua: EHDEM/8.3).

Bi kopiak sinatuko dituzte mahaiburuak, mahaikideek eta artekariak.

- **3. GUTUN-AZALA (MARROI KOLOREKOA)**, 2. gutun-azalaren agiri berdinak izango ditu. Baina, hala egokituz gero, atzeritik posta bidezko botoa emateko frankeo-gastuak itzultzeko eskabide-orriak gordetzen dituen gutun-azal zuria (Eredua: EHDM/8.12), (Eskuliburu honen III. Kapituluaren J Atalean aipatuta) ere izango du.
- **4. GUTUN-AZALA (MARROI KOLOREKOA)**, 2. gutun-azalaren agiri berdinak izango ditu.

Gutun-azal guztiak itxi ondoren, mahaiburuak, mahaikideek eta bertan dauden artekariak gainean sinatuko dituzte, gutun-azalak ixteko hegala gurutzatuz.

B) EPAITEGIAN AGIRIAK EMATEA (EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO 5/1990 LEGEAREN 122. ARTIKULUA).

Agiriak bete ondoren, mahaiburuak, mahaikideak eta nahi duten artekariak berehala joango dira mahaiari dagokion Lehen Auzialdiko edo Bake Epaketako egoitzara hauteskundeetako agiriak dituzten lau gutun-azalak uztera.

Egiteko hori bete ondoren, epaileak lau gutun-azaletan (marroi kolorekoak) sinatuko du, gutun-azala irekitzeko aldea gurutzatuz.

Epaileak aurkeztutako agiriak hartu izanaren egiaztatzea emango dio mahaiburuari, zenbatutako gutun-azalak zein egunetan eta ordutan eman dizkioten adieraziz (Eredua: EHDM/8.9).

ERANSKINA

HAUTESKUNDE-MAHAIAN EGONGO DIREN AGIRIEN EREDUAK

HAUTESKUNDE-MAHAIA OSATZEKO AKTA (EREDUA: EHDM/8.1).

HAUTESKUNDE-MAHAIAREN BEHIN-BEHINEKO BOTO-ZENBAKETA
JAKINARAZTEA (EREDUA: EHDM/8.2).

HAUTESKUNDE-MAHAIAREN BILKURA-AKTA (EREDUA: EHDM/8.3).

BOTO-EMAILEEN ZERRENDA ZENBAKIDUNA (EREDUA: EHDM/8.4) (EREDUA.
EHDM/8.4A).

LAU GUTUN-AZAL MARROI, MAHAIKO HAUTESKUNDE-AGIRIETARAKO (MOD.
EHDM/8.5)

EPAITEGIAK MAHAIARI BIDALITAKO AGIRIA, 1., 2., 3. ETA 4. GUTUN-AZALAK
EMAN IZANA EGIAZTATZEKO (EREDUA: EHDM/8.9).

BOZKETA-AGIRIAK, MAHAIK BETEKO DITU HAUTESLEAK HALA ESKATUZ
GERO (EREDUA: EHDM/8.11).

GUTUN-AZALA, ATZERRITIK BIDALITAKO POSTA BIDEZKO BOTOAREN
BIDALKETA-GASTUEN AGIRIAK SARTZEKO (EREDUA: EHDM/8.12).

HAUTESKUNDE-MAHAIKO BURUARI ZUZENDUTAKO BI GUTUN-AZAL, MAHAI
HORRETAKO ARTEKARIEN EGIAZTAGUTUNEN KOPIAK DITUENA (EREDUA:
EHIA/5.2 ZURIA ETA 5.3 HORIA).